



**NAZKATUTA GAUDE.
AUTODEFENTSA FEMINISTA!**



Zerrendatu genitzake bizi ditugun indarkeria instituzionalaren, pobretze estrukturalaren, gure gorputzenganako kontrolaren, kriminalizazioaren, bortxa sistematikoaren eta eskubide faltan adibideak. Baina, nazkatuta gaudela esatera gatoz. Ez da ezer berria. Sistema heteropatriarkal kapitalista ezer gutxi aldatu den honetan, are gehiago, indartu den honetan, berriz ere diogu: Nazkatuta gaude!

Patriarkatuak nolakotasun berriak aurkitu baditu ere, indarkeriak bere horretan jarraitzen du. Bada-kigu indarkeria matxistak egiturazko sistema oso bat duela atzean berau sostengatzeko eta justifikatzeko. Uda honetan geratutakoa biolentzia estruktural horren beste adibide bat besterik ez da; ziztaden harira emakumeenganako* kontrol eta beldur mekanismoak era masiboan jarri dira mar-txan: kontrol poliziala, oihartzun mediatikoa, beldurraren erabilera eta diskurtso morbosoen kapi-talizazioa, jarrera erreakzionarioak... Baita mugimendu feminista kriminalizatzeko bideak ere, Algortan eta Bilbon, adibidez.

Egoera horietan, batzuek eraso matxistek hartutako forma konkretu horietan jarri nahi izaten dute fokua, era utilitarista batean eraikitzen dituzte diskurtsoak beldurra hedatuz eta erreproduzitzen, etekin politikoa atera nahian. Baina fokua ez da hori, eraso matxisten ulerkera eta horien aurkako erantzunen antolakuntza feminista baizik.

Erantzukizuna eta arduraren gizonengan jarri nahi dugu. Olatu feministak iritsi zirenean, gizon batzuek ondo ikasi zituzten diskurtso eta azaleko jarrerak. Lotsarik gabe erabili dituzte ikasitakoak. Patriar-katua ere ez da lotsatu. Ez da aldatu, bere horretan jarraitzen du; olatu feminista bakoitzak lortu-tako garaipenen aurrean oldartu egiten da.

Ikusi dugu nola sistema kapitalista heteropatriarkalak feminismoaren termino eta iruditegietatik etekina atera duen bezala, gizonak ere berdintsu egin dutela. Itxurak ez baitu errokoa aldatzen. Are gehiago pandemia osteko gariotan. Non sistema heteropatriarkal kapitalista sostengatzen duten mekanismoak esplizituago ikusten diren; sistema heteroarautzailea, sexuaren araberako lan banaketa agerikoa, sektore feminizatuen muturreko prekaritatea... Indarkeria bere zentzu zabale-nean.

Zorionez, feministok hamaika forma horien aurrean beste hamabi modu bilatu ditugu horiei aurre egiteko. Horregatik, horri guztiari aurre egiteko autodefentsa feminista da dugun tresna. Urteak daramatzagu autodefentsa feministaren baitan antolatzeke deia egiten eta autodefentsa feministak har ditzakeen hamaika bide eta forma sortzen, aplikatzen eta aldarrikatzen. Ez dugu terminologia lausotzerik onartuko, urteetako lanaren ondoren aldarrikatu dugu Euskal Herri osoan autodefentsa feminista, eta berriz ere berresten gara aldarri honetan. Feminismoz armaturik gaude!

Autodefentsa feminista dugu lanerako, erantzuteko, pedagogiarako eta gure bizitzaren defentsa erai-kitzeko erreminta! Bide horretan jarraituko dugu; antolatzen, espazio kolektiboak sortzen, olatu feministak eragiten. Ezin daitekeelako uka feminismoak duen gaitasun politizatzailea eta sistema iraultzeko duen indarra. Kaleak hartzeko prest gaude eta ez gaitu inork geldituko, ez gaituzue geldi-tuko.

Gora borroka feminista!
Ekin autodefentsa feministari!

2022ko Azaroaren 25a,
Euskal Herriko Bilgune Feminista